



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bediako Udala

Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren Oinarri espezifikoak, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritakoa eta administrazio orokorra eskalako administrari azpieskalari dagokiona.

Alkatetzaren abenduaren 12ko 131/2022 Dekretuaren bidez, 2022ko Aldi Baterako Enplegua Egonkortzeko Oinarri Orokorrak eta Espezifikoak onartu dira. Hona hemen oinarri horiek:

Bedian, 2022ko abenduaren 12an.—Alkatea



**IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO
SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, 20/2021 LEGEAREN
6. ETA 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKOA ETA ADMINISTRAZIO
OROKORRA ESKALAKO ADMINISTRARI AZPIESKALARI DAGOKIONA**

1. Deitutako plazak

Administrazio Orokorra eskalako Administralari azpieskalako plaza (1) baterako deialdia egiten da, txanda irekiz, Taldea: C; Azpitalea: C1; honako banaketa honen arabera:

Plaza kopurua	Lotutako lanpostu kopurua	Ezaugarriak (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikokoak, etab.)
1	Administrazio Orokorra Eskala Administratibo Azpieskala	— 2 H.E. Derrigortasun-datarik Gabe (Apirilaren 15eko 86/1197 Dekretua) — KH/CD: 19 — LIBO 2022/CEPT 2022: 17.995,44

2. Parte hartzeko baldintzak

- Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorrarekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.
- Oinarri orokorretako 2.h) atalean xedatutakoari dagokionez, honako titulazio hau eskatzenn da: Goi Batxilergo titulua, bigarren gradu edo horren baliokide den Lanbide Heziketako titulua, edo baliokidea izatea, edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunez horietakoren bat eskuratzeko baldintzetan egotea. Baliokidetasuna hautagaiak aurkeztu beharko da eskumeneko Administrazioak horretarako igorritako ziurtagiri bidez.
- Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.

3. Hautaketa-prozesua

Hautaketa-sistema lehiaketakoa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

Lehen zatia, lehiaketa: hautagaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak esleituzaizkio, merezimenduen baremoaren arabera. Deialdia arautzen duten oinarri orokorretan puntuazioaren arabera ordenatutako instantzia-kopurua bakoitzi baloratuko da.

Lehiaketa ez da baztertzailerik izango, baina beharrezkoa izango da puntu guztien %25eko gutxienezko puntuazioa lortzea, oinarri orokorretako 9.2 oinarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

Bigarren zatia: euskara-proba: Bestetik borondatezkoa eta ez baztertzailerik, 2. hizkuntza-eskakizuna ez duten lotutako lanpostuetarako lehiatzen direnentzat. Nolanahi ere, maila horri dagokion euskararen ezagutza zehaztea eta egiaztatzea izango da proba.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berariaz Bedia-ko Udalari erregistro horretan egiaztatu dezan.

Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri aurkeztu egin beharko da (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeko eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateria-tuko mailekin parekatzeko buruzkoa).

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeko eta euskarazko hizkuntza-titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbues-tekoa), dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEB Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotu diren salbues-penak baino ez dira onartuko.

**4. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa**

Lehiaketaren kalifikazioa merezimen- duen baremoaren arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du (I. eranskina).

Inolako hizkuntza-eskakizunik eskatzen ez denean, euskara jakitea merezimenduetzat hartuko da.

Izangaien azken kalifikazioa hautaketa- prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

5. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik ez da enplegu- poltsarik sortuko.

6. Lehentasun-klausula aplikatzea

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, administrari azpieskalan emakumeen ordezkaritzarik dagoelako.

**I. ERANSKINA****MEREZIMENDUEN BAREMOAK**

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

a) *Esperientzia: gehienez 80 puntu*

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokorra da edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuen esperientzia, deialdia egin duen administrazioan barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional parekatuei atxikitako lanpostuetan, baldin eta kidego, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional horiek hautaketa-prozesuaren xede badira, edozein izanik ere horien sorburua, funtzionario- izaera edo lan-harremana.

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, Administrazio Orokorra eskalako Administralari azpieskalan edo Administralari kategorian, C1 azpitaldean, lan egindako egun bakoitzeko 0,01096 puntu.

a.2. Esperientzia espezifiko:

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuei 20 puntu emango zaizkie gehienez, berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, baremo honen arabera:

Deialdia egin duen Administrazioan Administrazio Orokorreko eskalako Administralari azpieskalan edo Administralari kategorian, C1 azpitaldean egindako zerbitzuengatik, lan egindako egun bakoitzeko 0,00366 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) *Gehienez ere 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei*

b.1. Erakunde ofizialetan jasotako prestakuntza (Herri Administra-zioko Eskola edo Institutuetan Herri Administrazioetan, Unibertsitateetan, Elkargo Profesionaletan, Mutua-litateetan, Fundazioetan, Elkarteetan, Federazioetan) emandako edo homologatutako ikastaro-ordu bakoitzeko, 0,063 puntu, gehienez 20, betiere ikastaroak deitutako lanpos-tuen eduki funtzionalarekin bat etorritik gero.

Euskararen ezagutza.

Euskararen ezagutza baldintza ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da, derrigor-tasun-data igarota ez izateagatik, baremo honen arabera:

2. hizkuntza-eskakizuna: 8 puntu.